

Denbora




1

Aurkitu irudian

Federiko Hankamotz pirata bizi den uharteko irudia duzu ondorengo hau. Lapurreta ugari egindakoa da Federiko, baina tarteka piratek sekula erabiliko ez lituzketen objektuak ere ekartzen ditu uhartera. Irudi honetan ere 3 elementu lekuz kanpo daude. Zer dago soberan?

2 Asmatu eta margotu

Galdera guztiei zuzen erantzuten badiezu, lauki bakoitza zein koloretan margotu behar duzun jakingo duzu. Amaieran, erantzun egokiak aukeratu badituzu, ezkutuan dagoen irudia ikusi ahal izango duzu.



1.- Non ospatuko da aurtengo Nafarroa Oinez?

(Erantzun egokia grisez margotu).

- 1.- Irunberri.
- 2.- Iruñea.
- 3.- Tafalla.

2.- Zein da Txan magoaren benetako izena?

(Erantzun egokia grisez margotu).

- 4.- Jose Ignacio Ansorena.
- 5.- Jose Mari Agirretxe.
- 6.- Xanti Antero.

3.- Zein herrialdeetan dago Ondarraitz hondartza?

Erantzun egokia grisez margotu).

- 7.- Bizkaian.
- 8.- Lapurdin.
- 9.- Gipuzkoan.

4.- Zein izenburu du Ken 7 musika taldearen azken diskoak?

(Erantzun egokia grisez margotu).

- 10.- Ken 7.
- 11.- Atzo da bihar.
- 12.- Bidean.

5.- Zenbat Tour irabazi ditu Lance Armstrong txirrindulariak?

(Erantzun egokia grisez margotu).

- 13.- Sei.
- 14.- Bat.
- 15.- Lau.

6.- Nola izena du Gasteizko jaietako pertsonaia ezagunak?


(Erantzun egokia grisez margotu).

- 16.- Marijaia.
- 17.- Fermin.
- 18.- Zeledon.

-pasa


3 Itzalak

Italiara egindako bidaiaren argazkiak erakutsi dizkio izebak Sarari. Pisako dorrearen argazki bat ere bazen artean. Ondorengo itzalei begiratuta, asmatuko al zenuke zein den Pisako dorrearena?



4 Bikiak

Eguraldi ona egiten du, eta tximeleta ugari dabilta zelaian. Maialen tximeletei argazkiak ateratzen aritu da. Ateratako argazkiak begiratzean, bi tximeleta berdin daudela ohartu gara. Zein dira berdinak?



Erantzunak: 1.- Aurkitu irudian: iratzargailua, beisboleko batea eta jostailuzko hegazkina. 2.- Asmatu eta margotu: hegazkin bat. 3.- Itzalak: c. 4.- Bikiak: b eta g.


eskulana

Koloreetako loreak

Lagunen bati lore sorta eder bat oparitu edo etxeko txokoak lorez apaindu nahi badituzu, irakurri ongi ondorengo azalpenak. Lore ederrak egiteko aukera izango duzu eskulan honen bidez

Beharrezko materiala

- Guraizeak.
- Zinta eranskorra, berdea eta gardena.
- Plastikozko bi platera; bata, urdina, eta bestea, berdea.
- Freska garriak edateko erabiltzen diren plastikozko lastoak.
- Kolore askotako pegatinak: biribilak eta izar itxurakoak.



Egiteko modua



1 Plastikozko plater urdin bat hartu, eta lau zatitan moztu. Kontuz ibili, ez dadila ebakia plateraren erdiraino iritsi; utzi zentimetro bateko tartea. Lau ebakiak egin ostean, plateraren ertzak moztu.



2 Platerean egindako ebaki bati jarraituz, lauki bat moztu plateraren erdian; baina ez moztu guztiz, utzi alde batetik lotuta. Zintzilik geratuko zaizun azpildura hori beherantz tolestu beharko duzu. Plateraren lau zatiak guraizeen laguntzaz biribildu, hosto itxura har dezaten.



3 Plateraren erdian hori koloreko pegatina biribil bat ipini; hala, lehen egindako zuloa estaliko dugu. Pegatina horiaren gainetik, izar itxurako beste pegatina berde bat itsatsi.



4 Plater berde bat hartu, eta urdinarekin egin dugun gauza bera egin (errepikatu lehen eta bigarren pausoa). Platerari forma emateko orduan, biribildu beharrean, itxura luzanga eman hostoen antza izan dezaten.



5 Zinta eranskor berdearekin plastikozko lastoa eta lorea itsatsi behar ditugu loretik zintzilik geratu den azpilduratik. Lastoa tolestean den aldetik itsatsi behar zaio loreari. Hostoak lastoaren beste aldetik sartu, eta itsatsi plastikozko lastoaren erdialdean.